

KANALAK

Étagère produktua, gure denda fisikoan eta interneten bitartez salduko da. Gure produktuak web orri propio bat izango du, informazioa eta laguntza eskuragarri izateaz gain, erosteko aukera izango duena. Hasiera batean, Euskal Herrian soilik salduko da, eta produktuak arrakasta hartzen duenean Espainia osoan saltzen hasiko gara gure denda fisiko gehiago jartzen. Hala ere, interneten bitartez Espainia osoan salduko da hasiera batetik, baina arrakasta izaten hasten denean, mundu osotik erosteko aukera eskainiko dugu.

Beraz, bitarteko kanalak eta kanal zuzenak erabiliko ditugu: interneten bidezkoak eta denda fisikoak.



Bezeroek gure produktuen berri izateko hainbat sare sozialetan iragarki txikiak jarriko ditugu. Adibidez, Instagramen, kontu propio bat sortuko dugu, [@etagere](#) izenarekin, bertan, produktuaren argazkiak eta linka gure web orrira eskuragarri aurkituko dira. Baita, gure produktuarekin zerikusia duten influenzer batzuekin kontaktuan jarriko gara kolaborazioak

eta kanpainak egiteko, horren ondorioz, Étagère produktuari promozioa egingo diote eta horrek, gure produktua geroz eta ezagunagoa izatea eragingo du. Facebooken gauza berdina egingo dugu arrakasta lortzeko. Gainera, Euskal irratian produktuaren eta lokalaren berri emango da, euskaldunen artean gure produktua eta lokala non dagoen ezagutzeko eta erosi ahal izateko.